

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Ardantza kaleko bizilagun batek eskatu du kale horretako arkupean inguruan poliziaren kontrol handiagoa egoteko, batez ere, asteburuetan, gazte asko biltzen direlako bertan eta batzuetan jokaera zakar eta heziketarik gabekoak dituztelako; eta, gainera, zarata handia atera eta inguru guztia zikin lagatzen dutelako.	Ahal den heinean handituko da inguru horretako zaintza. Arazo jakin bat dagoenean, jakinarazi egin dezakezue Udaltzaingoarekin harremanetan jarriz.
Hirigintza	Egogaineko bizilagun batek galdetu du ea Udalak neurriak hartu behar dituen trenbideko zarata gutxitzeko, batez ere, bihurgunearen aldean.	Trenaren zarata murrizteko neurriak Euskal Trenbide Sareari dagozkio. Eibarko Udalak hainbat aldiz eskatu dio ETSri neurriak har ditzan trenaren zarata arintzeko. ETS entitateak azterlan bat kontratatu du azpiegiturak Eibartik igarotzean ateratzen duen zarata neurtzeko, eta urte amaieran egingo da. Azterlan horren emaitzak tresnak emango dizkigu araudi akustikoa asko zehatzago betearazteko, inpaktu handieneko guneei lehentasuna emanaz.
Obrak	Eibarko Txikito kaleko bizilagun batek eskatu du kalea asfaltatzea 8 eta 12 zenbakien artean.	2021eko asfaltatze-lanen proiektuan sartu da.
Udaltzaingoa	Julian Etxebarria kaleko 10 zenbakiko bizilagun batek proposatu du kalea 7:45ak baino lehen irekitzea trafikoari, gaur egun egiten den bezala.	Eskabide honi erantzunez, hilabete batzuetatik hona, Julian Etxebarria 2, 4 eta 6, Zuloagarren eta Toribio Etxebarria kaleen oinezkoentzako gunea 5:45ean irekitzen da.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea

Saila

Laburpena